

Hamar urte



Bostekoa

Alex Silva

Gizakiak dena kontabilizatzeko ohitura du, dena zenbatzeko. Guztia zenbakietara ekartzen du, zenbaki bihurtzen du. Hamar urte, kontabilizatzeko era bat. Bederatzi gehi bat, edo zortzi gehi bi, edo... Mende erdiari berrogehi kenduta. 3653 egun. 87672 ordu.

Orain hamar urte ez genuen krisirik. Orain hamar urte, gazte-agoak ginen. Orduan jaiotako alabak 10 urte bete ditu. Ospatuko dugu. Hamar urte betetzen dituzten enpresak ospatzen duten moduan. Nola ospatu? Zer ospatuko zenuke zuk? Pentsatu, orain 10 urte...

Imaginatuz unen batez. Non zeunden zu orain hamar urte? Otsailean, hotza egiten zuen. Negu gogorra hura ere. Orduko gizarte giroa ez zen oraingoa mo-



Egunkaria-ren aldeko argazkia, Zarautzen 2010ean. AMAIA VENTAS

dukoa. Nahasiagoa zen, baina ekonomikoki hobea.

Une hartan, demokrazian egin gogoz litzatekeen larriena egin zen. *Egunkari* bat itxi. Arrazoi ideologikoak medio, esango nuke. Agian, harago, hizkuntza arra-

zoi. Ez zegoen arazorik, ez zegoen ixteko argudiorik... baina itxi zen. Legea eskuan hartuta eta errugabeak erruduntzat jota, ia terroristatzat, itxi zen.

Askatasunaren izenean itxi zen *Egunkaria*. Jendearen aska-

tasuna bermatzeko kazetariari askatasuna ukatu? Demokraziaren izenean eta berau babesteko itxi zen *Egunkaria*. Informazio eskubidea eta adierazpen askatasuna ukatzen duena da demokrazia? Nazio segurtasunaren izenean

itxi zen *Egunkaria*. *Egunkaria* moduko enpresa eta egunkari humil eta duinek nazio baten segurtasuna jokoan jartzen al dute?

Berrituz gure herriak bitan zati ziren. Aldekoak eta aurkakak. Hamar urte ondoren, zenbait epaiketaren ondoren, gauzak ez dira berdin ikusten. Ia edonork onartzen du «akatsa» izan zela, «akats larria». Baina beti daude edozein ekintza babestuko dutenak. *Egunkaria* itxi, bere ahotsa isildu, *terrorista* izendatu... Bizitza kalitatea murriztu izan zaie kazetari horiei hamar urte horietan. Haien bizitzako egun asko lapurtu dizkiete. «Akats» baten ondorioz, egun asko galdu dituzte. Egunduek ez dira bueltatuko. Ez, beste hamar urte barru ere. Hori bai, «akats» horien erantzuleak? Non daude? Libre?

Nik ez dut ulertzen. Agian kazetaria naizelako, eta kazetariak ez ditudalako *terroristatzat*, demokraziaren zerbitzaritzat baizik, informazioa eman, eta gero, jendeak erabaki dezala. Nik ez dut ulertzen, nola da posible demokraziaren izenean egunkari bat ixtea. Nik ez dut ulertzen, bere burua demokratatzat duena horrelako ekintza bat onartzea. Ez dakit, beste hamar urte barru agian...